



EMAITZA NABARMENAK

GURASO IZAN NAHI DUGU?

Iritziak eta ikuspegiak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA
DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO




GAZTEEN EUSKAL
BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO
DE LA JUVENTUD



Ikerketaren helburua


Euskadin, gure inguruko gainerako herrialdeetan bezala, jaiotza-tasa nabarmen jaitsi da. Azterlan honen helburua da 25 eta 39 urte bitarteko pertsonen amatasunari eta aitatasunari buruz dituzten iritziak, motibazioak, nahiak, kezkak eta zailtasunak ezagutzea.



Iturria: Eustat. Jaiotzen Estatistika.



Guraso izan nahi dugu? Iritziak eta ikuspegiak



Metodologia

Unibertsoa: Euskadiko 25 - 39 urteko pertsonak

Lagina: 2.323 pertsona

Inkesta-mota: online eta telefonikoak

Datak: 2024ko azaroak 11 eta abenduak 17 bitartean

25 – 39 urteko pertsonak → 2.323 inkesta

Inkestatutako pertsonen
% 66,5ek ez du seme-
alabarik, eta % 33,5ek bai

Lagin-errorea $\pm$ % 2,0koa da lagin osorako, % 95,5eko konfiantza-mailarekin eta lagina guztiz ausazkoa izatearen hipotesi teorikoa oinarri hartuta ($p = q = 0,5$).



Amatasun eta aitatasunari buruzko ideiak

Gehienek uste dute umeak izateak uko-egite eta presio handiagoa dakartzala emakumeentzat.

Oso + nahiko ados	Guztira	Emakumeak	Gizonak
Lanbideari uko-egite handiagoa dakarkie emakumeei	% 78,9	% 87,9	% 69,8
Emakumeak gehiago inplikatzan dira oraindik seme-alaben hazkuntzan	% 76,0	% 85,1	% 66,7
Etxean lan-karga handiagoa dakarkie emakumeei	% 75,2	% 87,0	% 63,3
Seme-alabak izateko presio sozial handiagoa jasaten dute emakumeek	% 71,1	% 79,9	% 62,3

Guraso izan nahi dugu? Iritziak eta ikuspegiak



Guraso direnen esperientzia

Amek hazkuntzak eragindako zailtasun gehiago adierazten dituzte aitek baino.

Oso + nahiko ados	Guztira	Emakumeak	Gizonak
Hazkuntza-lanen eta etxeko lanen banaketa orekatua da	% 64,3	% 53,1	% 79,6
Zure egoera emozionalak hobera egin du	% 56,5	% 50,0	% 65,3
Gainezka eginda sentitzen zara erantzukizunekin	% 54,9	% 61,8	% 45,5
Zure bikote-harremanak hobera egin du	% 30,6	% 23,1	% 40,7

Guraso izan nahi dugu? Iritziak eta ikuspegiak



Guraso izan eta lanean ari direnen esperientzia

Lan egiten duten amek ere zailtasun gehiago dituzte lan-kontziliazioari dagokionez, aitek baino.

Oso + nahiko ados	Guztira	Emakumeak	Gizonak
Lanak eragindako estresak aita edo ama gisa duzun ongizateari eragiten dio	% 70,3	% 76,1	% 63,6
Hazkuntzak eragindako estresak edo kezkek eragina dute zure errendimendu profesionalean	% 46,5	% 50,0	% 42,6
Lanean eskaintzen dizkizuten kontziliazio-neurriak nahikoak dira	% 44,9	% 40,6	% 49,9
Seme-alabak izateak eragin negatiboa du zure lan-aukeretan	% 38,6	% 48,5	% 27,1

Guraso izan nahi dugu? Iritziak eta ikuspegiak



Oraindik umerik ez dutenen kezkak gurasotasunari dagokionez

Norberaren denborari uko egitea da gehien kezkatzen dituenak. Berriz ere, planteatutako gai guztiek gehiago kezkatzen dituzte emakumeak.


Asko edo nahikoa kezkatzen ditu	Guztira	Emakumeak	Gizonak
Zuretzat denborarik ez izateak	% 64,6	% 72,2	% 58,0
Zure osasun fisiko edo mentala ahultzeak	% 59,4	% 74,7	% 46,8
Zure bizimodua aldatu behar izateak	% 55,6	% 61,2	% 50,5
Zure bikote-harremana ahultzeak	% 53,2	% 59,0	% 48,8
Ama edo aita gisa jarduten ez jakiteak	% 54,3	% 61,8	% 48,2
Erosteke ahalmena galtzeak	% 49,9	% 52,5	% 47,7
Zure proiektu profesionalak garatu ezin izateak	% 49,3	% 60,1	% 40,4



Oraindik umerik ez duten gehienek eduki nahi dituzte etorkizunean

Umerik izan nahi ez dutenen % 43,6k dio erabaki irmoa dela.

Umerik ez duten 25-39 urteko emakumeen % 7,6 eta gizonen % 5,0 dira horiek.



Hazkuntzaren erantzukizun-banaketan desberdintasuna dagoela dioten emakumeek neurri handiagoan adierazten dute umerik ez izateko erabakia.

Guraso izan nahi dugu? Iritziak eta ikuspegiak



Seme-alabek bizitza aberasten dute. Hori da guraso direnen edo guraso izan nahi dutenen arrazoi garrantzitsuenak

UMEAK IZATEKO ARRAZOIAK

Umeek bizitza aberasten dute, 8,2

Haurrak asko gustatzen zaizkit, 7,7

Umeak izateko sen biologikoa sentitzen dut, 7,1

Nire familia-eredu idealean seme-alabak daude, 6,5

Ama/aita izanda zoriontsuagoa izango naiz, 6,4

0-10 eskala

Badakit nire bikotekideak umeak izan nahi dituela, 5,3

Guraso izan nahi dugu? Iritziak eta ikuspegiak



Bizitza beste proiektu batzuetara bideratu nahi izatea da umerik ez izateko arrazoi nagusia

UMERIK EZ IZATEKO ARRAZOIAK

Bizitza beste proiektu batzuetara bideratu nahi dut 7,6

Nahiago dut bakarrik edo bikotekidearekin bizitzea, umerik gabe 7,5

Seme-alabak ondo zaintzeak erantzukizun handiegia dakar 6,8

Seme-alabak haztea ekonomikoki oso garestia da 6,3

Gauzak dauden bezala hobe da ez ekartzea haurrik mundura 6,1

Haurrak ez zaizkit gustatzen 4,3

0-10 eskala


Oztopo dira ibilbide profesionala garatzeko 4,1

Guraso izan nahi dugu? Iritziak eta ikuspegiak




2,2 seme-alaba da zenbaki ideala, eta oraindik ez dutenek 33,3 urterekin izan nahi dute lehenengoa

Seme-alabak dituzten edo izan nahi
dituzten 25-39 urtekoak




Seme-alabarik ez duten 25-39 urtekoak



Beren itxaropenak ez direla beteko uste izateko arrazoiak, funtsean, ekonomikoak eta lanekoak dira.

Guraso izan nahi dugu? Iritziak eta ikuspegiak



Lana eta bizitza pertsonala kontziliatzeko neurriak dira hobekien baloratzen diren laguntzak

Seme-alabak dituzten pertsonak kritikoagoak dira laguntzekin.

Asko + nahiko laguntzen dutela uste dute	Guztira	Umerik ez	Umedunak
Haurreskolen edo hartzaindegiko eskaintza	% 63,8	% 66,5	% 59,5
Aitatasun-baimenaren iraupenak (16 aste)	% 58,3	% 62,5	% 52,0
Amatasun-baimenaren iraupenak (16 aste)	% 54,2	% 59,6	% 46,1
Aisialdi hezitzaileko programen eskaintzak (hala nola, haurguneak eta kideguneak)	% 55,4	% 59,8	% 48,8
Umeak zaintzeko lanaldi-murrizketa hartzen duten pertsonentzako diru-laguntzak	% 45,6	% 57,0	% 28,1
Umeak zaintzeko eszedentzia hartzen duten pertsonentzako diru-laguntzak	% 44,0	% 55,4	% 26,6
Ume bakoitzeko hileko diru-laguntzen iraupenak (3 urtera arte, lehen eta bigarren umearentzat)	% 42,6	% 48,8	% 32,8
Ume bakoitzeko hileko diru-laguntzen zenbatekoak (200 euro)	% 39,5	% 41,3	% 36,9
Seme-alabak zaintzeko pertsonak kontratatzeako diru-laguntzak	% 35,5	% 46,6	% 18,5

Guraso izan nahi dugu? Iritziak eta ikuspegiak

